

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak antolatzeko 2021eko diru-laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea. BDNS (Identif.): 579646.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/579646>):

2020ko irailaren 25an, udal Osoko Bilkureak, zenbait oinarri espezifiko aldatzea onartu eban eta, euren artean, Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolasizaerako kirol ekimenak antolatzeko diru-laguntzenak.

2021eko maiatzaren 26an, Idazkaritza Saileko AOTk 2021eko dirulaguntzen deialdia onartzeko erabagi proposamena egin eban.

2021eko abuztuaren 10ean, Kontu hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin eban.

Goian adierazitako kontuan hartuta, honakoa erabagi dot: Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak antolatzeko 2021eko diru-laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea, eta beharrezkoak diren eranskinak onartzea.

Bermeon, 2021eko abuztuaren 12an. — Alkate Ordea, Idoia Platas Arenaza